

LEGE-INFORMAZIOA

Informazioaren eta Merkataritza Elektronikoaren Gizartearen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legea betez, jakinarazi nahi dizugu www.irrienlagunak.com Interneteko domeinuaren titularra honako hau dela:

Sozietatearen izena: Irrien Lagunak, SL

IFK: B75021725

Helbidea: Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea z/g - 20140

Herria: Andoain (Gipuzkoa)

Telefono-zenbakia: 902 820 806

Helbide elektronikoa: kudeaketa@irrienlagunak.com

Erregistro-datuak: Gipuzkoako Probintziako Merkataritza Erregistroa, 2472. liburukia, 158. folioa, 8. atala, SS 32476 orria.

PRIBATUTASUN-POLITIKA

1. Atariko

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera (aurrerantzean, DBLO), erabiltzaileei jakinarazi nahi zaie webgune honetan ematen dituzten datu pertsonalak Irrien Lagunak SLren fitxategietan jasoko direla, horixe baita Fitxategiaren Arduraduna. Hala, eskatutako zerbitzuen kudeaketa-lana egiteko, merkataritza-harremanetarako, jasotako kontsultei eta eskaerei erantzuteko, zuekin harremanetan jartzeko eta bere jarduerari legez dagozkion funtzio guztiak egiteko erabiliko dira.

Zure datu pertsonalak, bestalde, isilpean erabiliko dira. Izan ere, Irrien Lagunak SLk Datu Pertsonalen Babeserako indarrean den araudia betetzen baitu eta izena emana baitauka Datuen Babeserako Agentziaren Erregistro orokorrean.

Irrien Lagunak, SLk erabiltzaileen datu pertsonalak pribatutasunez erabiltzeko eta horiek babesteko konpromisoa dauka; hala, eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu, interesdunen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzeko. Irrien Lagunak, SLk, hain zuzen, datuen babeserako autonomiako, estatuko eta Europako erakundeek emandako aholku, berrikuntza eta gidalerroak erabiltzen ditu, eta baita *Article 29 Working Party* eta kontrolerako beste agintaritza batzuek emandakoak ere.

Irrien Lagunak, SLk erabiltzaileei gomendatzen die begira ditzatela haurren eta gazteen datu pertsonalen babesari buruz Datuak Babesteko Euskal Bulegoak argitaratutako hainbat material. Informazio hori guztia (teknologia berrien erabilerari buruzko eskuliburuak, bideo hezitzaileak, etab.), hain zuzen, www.kontuzdatos.info helbidean dago ikusgai.

2. Datu pertsonalak biltzea

Irrien Lagunak, SLk ez dio erabiltzaileari datu pertsonalak emateko eskatzen, bere web-orrira sartzeko; alabaina, bada bazkideentzako gune bat, eta bertan sartzeko, ezinbestekoa da erabiltzailea aurretik erregistratzea.

Era askean eta borondatez erregistratu daiteke web-orriko bazkideentzako gunean, ezer ordaindu gabe, alegia. Bazkideentzako gunean erregistratzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak emateko, berriz, galdetegi bat bete beharko da. Bertan, datu horien helburua zein den eta zein datu ematea derrigorrezkoa den adierazita egongo da. Irrien Lagunak, SLk erabiltzaileak eskatutako zerbitzua jasotzeko beharrezkoa den informazio pertsonala baino ez du eskatuko.

Web-orri honen bitartez informazioa bidali behar bada, ezinbestekoa da honako pribatutasun-politika honetan eta webgunearen baldintza orokorretan deskribatutako datuen tratamendurako baimena ematea.

3. Adingabeen datuak biltzea

Irrien Lagunak, SLk ez die inolako datu pertsonalik eskatuko adingabeei. Datu pertsonal guztiak haurren tutore edo gurasoenak izango dira.

Hala, adingabeen datu pertsonalak euren gurasoen edo legezko tutoreen datuei lotuta geratuko dira; horrenbestez, horiek izango dira euren kargura dauden adingabeen kontuen azken administratzaileak. Gurasoekin harremanetan jarri ahal izango da enpresa, adingabeei buruzko egiaztapen jakin batzuk egiteko edo beste zenbait arrazoi direla tarteko, baldin eta beharrezkoa irizten badio.

Irrien Lagunak, SLk gurasoei eta legezko tutoreei gomendatzen die webgune honetan nabigatzen laguntzeko euren seme-alabei. Orria erantzukizunez erabiliz gero baino ez baikara seguru ibiliko.

4. Jakinarazpenak hirugarrenei

Irrien Lagunak, SLk ez die, inola ere, bere datu pertsonalak emango beste enpresa batzuei edo hirugarrenei. Beste enpresa batzuen produktuak edo zerbitzuak eskainiz gero, Irrien Lagunak SL bera arduratuko da erabiltzaileari zuzenean jakinarazpen horiek egiteaz. Dena den, interesdunak uko egin diezaieke, noiznahi, bidalketa horiei. Horretarako, eskaera idatzia bidali beharko dio fitxategiaren arduradunari.

5. Interesdunen eskubideak

Irrien Lagunak, SLk erabiltzaileari gogorarazi nahi dio noiznahi erabil ditzakeela datuetara sartzeko, datuak aldatzeko zein ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak. Horretarako, idatzia bidali beharko dio Irrien Lagunak SLko Fitxategiaren Arduradunari: Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain (Gipuzkoa), Tel.: 902 820 806. Edo, bestela, kudeaketa@irrienlagunak.com helbide elektronikoaren bitartez. Eskaerarekin batera, interesdunaren Nortasun Agiriaren fotokopia bidali beharko da.

Eskaera lege-ordezkarari moduan egiten badu, berriz, Nortasun Agiriaren fotokopia ez ezik, ordezkaritza horren egiaztatzea ere bidali beharko du.

6. Segurtasun-neurriak

Irrien Lagunak, SLk, bere fitxategietako datu pertsonalak erabiltzean, datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe erabiltzea saihesteko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolamendu-neurriak hartuko ditu. Betiere, teknologia-egoera, bildutako datuen izaera eta horiek izan ditzaketen arriskuak kontuan izanda; bai giza jardunak eragindakoak, bai ingurune fisiko zein naturalak eragindakoak. Horretarako, aintzat hartuko du datu pertsonalak biltzen dituzten fitxategien segurtasun-neurriak aplikatzeari buruz indarrean den legedia; batez ere, DBLO eta beronen garapenerako araudia. Nolanahi ere, erabiltzaileei argi adieraziko zaie segurtasun-neurri informatikoak ez direla erasoezinak, eta ondorioz, gerta litezkeela legez kanpoko esku-hartze edo esku-hartze bidegabeak, baina ez liratekeela Irrien Lagunak SLren erantzukizunpekoak.

Erabiltzailearen segurtasuna eta pribatutasuna bermatze aldera, Irrien Lagunak SLk konexio seguruko Secure Sockets Layer - SSL protokoloetan oinarritutako kodetze-teknologia erabiltzen du, ahalik eta seguruen nabigatu ahal izateko.

7. Trafiko-datuak eta Cookieak

Irrien Lagunak, SLren webguneak, erabiltzailearen nabigazioa errazteko eta hobetzeko asmoz, cookieak erabiltzen ditu. www.irrienlagunak.com-ek erabilitako cookieak saioko cookieak izaten dira; beraz, erabiltzaileak saioa amaitu bezain pronto ezabatu egiten dira.

Web-zerbitzari batek erabiltzailearen disko gogorrean utz dezakeen testu-fitxategia da, hain zuzen, cookie bat; berriz konektatzen denean identifikatu ahal izateko. Irrien Lagunak, SLren webguneak berak sortutako cookieak baino ez ditu irakurriko. Irrien Lagunak, SLk erabilitako cookieak, beraz, erabiltzaile eta ordenagailu bakar bati lotutakoak izango dira; eta ezingo da beste datu pertsonaletara sartu.

Nabigatzaile gehientsuenek automatikoki onartzen dute cookieak erabiltzea; halere, erabiltzaileak bere nabigatzailea konfigura dezake, ordenagailuko pantailan cookieak jaso direla adierazteko, eta bide batez, bere disko gogorrean instala daitezten saihesteko.

Era berean, webgune honen bitartez zerbitzu hobe eskaintzeko asmoz, www.irrienlagunak.com-ek IP helbidea erregistratzen du. Era horretan, gerora, datuak prozesatu ahal izango dira, ikusitako orrialdeen kopurua, bisiten kopurua eta web-orriko bisitarien jarduera eta erabilera-maiztasuna zein izan den aztertzeko.

Aipatutako helburua lortzeko, Google Analytics-ekin ari gara webgune hau neurtzen eta aztertzen. Aztertzaile horrek orrialdeetako markak eta cookieak erabili ahal izango ditu, Irrien Lagunak SLren webguneko orrialdeetan gertatzen dena aztertu ahal izateko.

8. Indarraldia

Irrien Lagunak, SLk beretzat gordetzen du bere pribatutasun-politika aldatzeko eskubidea, bai ordura arteko irizpideak aldatu dituelako, bai lege- edo jurisprudentzia-aldaketak izan direlako. Irrien Lagunak, SLk aldaketaren bat eginez gero, ordea, testu berria webgune berean argitaratuko du, eta erabiltzailea berehala ohartuko da. Dena den, erabiltzailea webgunean sartzen den unean bertan aurreikusita dauden arauk arautuko dute erabiltzaileekiko harremana. Horregatik, Irrien Lagunak SLk gomendatzen dizu aldian-aldian sartzeko pribatutasun-politika horretara.